



**Arartekoaren 2023R-674-23 Ebazpena, 2023ko uztailaren 27koa. Honen bidez, Gasteizko Udalari gomendatu zaio trafikoko araudia hausteagatik jarritako zehapen bat indargabetu dezala.**

### Aurrekariak

1. Herritar batek kexa aurkeztu zuen Arartekoan udaltzain batek bere ibilgailuaren kontra egin zuen salaketa bat zela-eta Gasteizko Udalak jarri zion zehapen baten harira *“baimendu gabeko ibilgailua zamalanetarako gunean aparkatzea, haren erabilera-orduetan”*.
2. Kexagilea ez zegoen ados zehapenarekin, izan ere, adierazi zuenez, araudiak desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartela duten ibilgailuak zamalanetarako gunean aparkatzea baimentzen du eta bere ibilgailuak bistara zuen txartel hori aurreko panelean, beti izan ohi baitu finko. Bere alegazioekin batera ibilgailuaren argazki bat aurkeztu zuen, txartela jarrita zuela egiaztatzeko. Txartelaren kopia bat ere aurkeztu zuen.
3. Kexa onartu eta aztertu ondoren, Arartekoak Gasteizko Udalera jo zuen eta zehapen-prozedurari dagokion administrazio-espeditentearen kopia bat eskatu zion. Era berean, udal-eginbidearen indarraldiari buruzko informazioa eskatu zion *“Desgaituen txartelarekin zamalanerako egokitutako eremuan aparkatzea”*; ea udaltzainak egiaztatu zuen inguruan zeuden (oso gertu) mugikortasun urriko pertsonentzako plazak okupatuta zeudela; eta ea udaltzainak egiaztatu zuen kalteak eragiten ari zitzaizkiela oinezkoiei edo trafikoari eta hala jasota zegoen salaketa edo berrespenean.
4. Udalak administrazio-espeditentearen kopia bidali zuen, baina ez zuen eman erakunde honek mahai gainean jarri zituen alderdien berri.

### Gogoetak

1. Aldez aurretik adierazi behar da Arartekoak ez duela inolako arrazoirik ikusten Udalari eskatutako informazioa erakunde honi igortzeko legezko betebeharra betetzea eragotzi dionik (Ararteko erakundea sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23. eta 24. artikulua).

Gainera, Arartekoak berriro esan behar du bere eskaeretan azaltzen diren kontuei erantzunik ez ematea edo erantzun eskasak ematea oztopo handia direla legez esleitutako eginkizunak behar bezala betetzeko; gainera, horrek modu larrian





kaltetzen ditu ordenamendu juridikoak beren interesak defendatzeko eskura jartzen dizkien tresnetako bat erabiliz erakunde honetara jotzen dutenen eskubideak.

2. Kexaren mamira sartuta, azpimarratu beharra dago salaketa-buletinaren arau-haustea honako hau izan dela: *"baimendu gabeko ibilgailua zamalanetarako gunean aparkatzea"*. Salaketa ez zen segituan aurkeztu, gidaria ez zegoelako bertan.

Bestalde, interesdunari jakinarazitako salaketaren arabera, urraturiko xedapena zirkulazio-araubideko 91.2 g) artikulua da; horren arabera:

*"Leku arriskutsuetan edo zirkulazioa larriki oztopatuz gelditu edo aparkatu dela ulertuko da zirkulaziorako arrisku edo oztopoak sortzen badira; hain zuzen ere, honako kasu hauetan:*

*(...)*

*g) Zamalanetarako guneetan aparkatzen denean, lan horiek egiteko dauden orduetan."*

Hala ere, Desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartela arautzen duen martxoaren 22ko 50/2016 Dekretuaren 7.1 artikuluan xedatzen da aparkatze-txartelaren titularrek honako eskubide hauek izango dituztela, baldin eta txartela ibilgailuaren barruan ikusgai jartzen badute: *"Zamalanetarako erreserbatutako guneetan gelditzea edo aparkatzea, udalek ezarritako zehaztapenekin bat etorritz, betiere kalterik egiten ez bazaie oinezkoei edo trafikoari."*

Bere alegazioetan, interesdunak gaikuntza hori aipatu zuen, izan ere, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartelaren titularra da eta hori, baieztatu duenez, bistara zegoen aurreko panelean, izan ere, aurreko haizetakora itsatsita du barrutik; horren argazki bat aurkeztu du. Interesdunaren alegazioen berri izan ostean, udaltzain salatzaileak *"se ratifica en la sanción impuesta"* eta honako hau adierazi du: *"el vehículo denunciado no tenía la tarjeta para personas con discapacidad en el vehículo"*.

Hortaz, ikuspegi kontrajarriak daude txartela bistara egoteari dagokionez, baina Udalak, bere ebazpenean, ondorioztatu du zehapena arrazoitu zuen salaketaren legeko egiazkotasun-presuntzioa eta udaltzainaren berrespena nahikoa direla kexagilearen errugabetasun-presuntziorako eskubidea indargabetzeko.

Edonola ere, Udalak ez du inoiz esan aparkatzeak oinezkoei edo trafikoari kalterik eragiten dienik, eta kexagileak frogatu du aparkatzeko erreserbatutako gunea erabiltzeko eskubidea duela. Horrez gain, txartela ikusgai ez edukitzea ez da, trafikoari dagokionez, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra urratzearen ziozko arau-hauste bat. Ondorioz, Arartekoak uste du zehapena ondoriorik gabe utzi beharko litzatekeela.





Egiaz, araudi aplikagarrian ez da zehatzen txartelaren titularraren deskuidua edo ahaztea txartela ikusgai dagoen toki batean jartzeari dagokionez —nahiz eta derrigorrezkoa den berau jartzea, horrek titularrak toki horietan aparkatzeko baimena duela egiaztatzeko lanak errazten baititu—; zehatzen dena da gune erreserbatu horietan aparkatzea horretarako beharrezkoa den txartelaren titularra izan gabe.

Udalak ez du inoiz aipatzen jokabide hori zehatzeko aukera ematen duen lege-mailako araurik; beraz, txartela bistara zegoela baieztatu izan balitz ere, ez litzateke arau-hausterik egongo eta zehapena bidegabea izango litzateke.

Zentzu horretan, gogorarazi behar dugu Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 27.1 artikulua arabera, administrazioko arau-hausteak direla soilik ordenamendu juridikoaren urraketak, legeren batean halako arau-haustetzat aurreikusita daudenak, hargatik eragotzi gabe apirilaren 2ko 7/1985 Legearen XI. tituluan toki-administrazioarentzat xedatuta dagoena.

Hala, tipikotasun-printzipioak Espainiako Konstituzioaren 25.1 artikulua manuari dagokio. Bertan, zera ezartzen da: *“Ezin dakioker inori egite edo ez-egiteen ondorioz kondena edo zehapenik ezar, baldin eta, une horretan delitu, falta edo arau-hauste administratiboak ez badira, aldi horretan indarrean dagoen legeriaren arabera”*.

Gainera, auzitegiek adierazi dute posible dela txartelaren titulartasuna beranduago egiaztatzea arau-hausterik egon ez dela ondorioztatzeko.

Hala, Logroñoeko administrazioarekiko auzien 1. epaitegiaren maiatzaren 25eko 71/2017 Epaian honako hau adierazi zen: *“...una vez acreditado por...que estaban en posesión del documento que les habilita para estacionar en las zonas señalizadas para uso exclusivo de minusválidos y que ese documento estaba en vigor, no cabe entender que hubieran cometido infracción alguna, más si cabe cuando la tarjeta estaba en el vehículo, de manera que la falta de diligencia de la conductora debe alcanzar a que tenga que acreditar, como así hizo, la vigencia de la tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad, pero no a considerarla responsable de una infracción que en momento alguno cometió”*.

Gauza bera ezarri zen Santanderreko administrazioarekiko auzien 1. zenbakiko epaitegiaren otsailaren 4ko 23/2014 Epaian.

3. Zehapen-ebazpena jakinarazi ondoren, interesdunak idazki bat aurkeztu zuen salaketarekin eta, ondorioz, zehapenarekin ados ez zegoela adierazteko, eta, beraz, berraztertze errekurtsotzat hartu behar zen, eta hala izapidetu (Administrazio





Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen -aurrerantzean, APAPEL- 115. art.).

Errekurtso hori ez zen APAPELean xede horretarako ezarritako epearen barruan ebatzi eta, hala ere, interesdunak zorraren iraungipenaren jakinarazpen bat jaso zuen.

Horren haritik, gogorarazi behar dugu Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 165.2 artikulua bigarren paragrafoan honako hau adierazten dela: *“Zehapen baten aurka errekurtsua edo erreklamazioa jartzen bada garaiz eta behar bezala, betearazpen-aldia ez da hasiko harik eta zehapena irmoa izan arte administrazio-bidean eta ordainketa borondatezko epean egiteko epea amaitu arte.”*

Bestalde, APAPELaren 90.3 artikuluan honako hau ezartzen da: *“Prozedura amaitzen duen ebazpena betearaztekoa izango da haren kontrako administrazio-bideko ezein errekurtsu arrunt jartzetik ez dagoenean, eta kautela-neurriak har daitezke, hartan, betearaztekoa ez den bitartean haren efikazia bermatzeko; kautela-neurria izan daiteke behin-behineko neurriei eustea, halakorik hartu denean.”*

Auzitegi Gorenaren 2020ko maiatzaren 28ko 586/2020 Epaiak (Errekurtsoa: 5751/2017) adierazi zuen, aukerako berraztertze errekurtsua jartzean egintzaren betearazpena etetea eskatu ez arren, Administrazioak ezin duela egintza betearazi premiamenduzko probidentzia eman ez errekurtsu hori ebatzi arte. Zehazki, hau aipatzen du:

*“Pues bien, de la recta configuración legal del principio de ejecutividad y de sus límites, así como del régimen del silencio administrativo -lo que nos lleva a extender el elenco de preceptos interpretados a otros como los artículos 21 a 24 de la LPAC y sus concordantes; de los artículos 9.1, 9.3, 103 y 106 LJCA; así como el principio de buena administración -que cursa más bien como una especie de metaprincipio jurídico inspirador de otros-, puede concluirse la siguiente interpretación:*

*1) La Administración, cuando pende ante ella un recurso o impugnación administrativa, potestativo u obligatorio, no puede dictar providencia de apremio sin resolver antes ese recurso de forma expresa, como es su deber, pues el silencio administrativo no es sino una mera ficción de acto a efectos de abrir frente a esa omisión las vías impugnatorias pertinentes en cada caso.*

*2) Además, no puede descartarse a priori la posibilidad de que, examinado tal recurso, que conlleva per se una pretensión de anulación del acto fuera atendible lo que él se pide. De esa suerte, la Administración no puede ser*





*premiada o favorecida cuando no contesta tempestivamente las reclamaciones o recursos, toda vez que la ejecutividad no es un valor absoluto, y uno de sus elementos de relativización es la existencia de acciones impugnatorias de las que la Administración no puede desentenderse.*

*Es cierto que el recurrente no promovió, como le era posible, la suspensión del acto recurrido en reposición, pero tal circunstancia sólo habría hecho más clara y evidente la necesidad de confirmar la sentencia, pues al incumplimiento del deber de resolver sobre el fondo -la licitud de la liquidación luego apremiada-, sobre el que nos hemos pronunciado, se solaparía, además, haciendo la conducta aún más grave, el de soslayar el más acuciante pronunciamiento pendiente, el de índole cautelar.”*

Gauzak horrela, Arartekoaren ustez, zehapen bat kobratzeko betearazpen-aldia zehapen-ebazpen horren aurka aurkeztutako errekurtsioa berariaz ebatzi baino lehen hastea ez dator bat azaldutako araudiarekin eta doktrinarekin, eta, beraz, itzuli egin behar da bidegabe kobratutako zenbatekoa.

Horregatik guztiagatik, Arartekoak gomendio hau egiten dio Gasteizko Udalari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera

### **GOMENDIOA**

Ondoriorik gabe utz dezala kexagileari ezarritako zehapena, gomendio honetan zehar azaldutako arrazoiengatik, eta kexagileak ordaindutakoa itzultzeko erabakia har dezala.

